



**ARANTZako UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
[arrantza.udala@terra.es](mailto:arrantza.udala@terra.es)

## 2012KO OTSAILAREN 3KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.

**Batzarra:** Ohiko bilera.

**Deialdia:** Lehenengoa.

**Eguna:** 2012.02.03.

**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.

**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

### **Bertaratu ez direnak:**

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn., lanean dagoelako.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Tellechea Echeverria anaiak: oihan probetxamendu eskaerak.
- 3.-Arantzako ehiza kotoaren berriztapena.
- 4.-San Fermin Ikastola: diru laguntza eskaera.
- 5.-Euskal Artzaiak Ameriketara: diru laguntza eskaera.
- 6.-Gaztelu Elkartea: diru laguntza eskaera.
- 7.-Ezkontza zibilak eta hildakoen aldeko agurrak edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza: hasierako onespina.
- 8.-Alkatearen ebazpenak.
- 9.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2012ko urtarrilaren 13an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, 4. puntua aldatuz.

Akordioak haxe esaten du: “Batzorde Paritario Mistoaren Arantzako Udaleko ordezkariak hauek izendatzea: Jaime Iturria Mitxelena jauna, Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna eta Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jauna”.

Eta honela behar du: “Batzorde Paritario Mistoaren Arantzako Udaleko ordezkariak hauek izendatzea: Jaime Iturria Mitxelena jauna, Jose Ignacio Madariaga Vergara jauna, Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jauna eta Ander Almandoz Indakoetxea.”.

## **2.-TELLECHEA ECHEVERRIA ANAIK: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERAK.**

Tellechea Echeverria anaiak, Lorenzo Tellechea Fagoaga jaunaren izenean, Goiko Borda eta Mugako erreka alderdietan zuhaitzen probetxamendua egiteko eskaerak ikusirik: 5. poligonoko 53. eta 47. lur zatietan entresaka eta 5. poligonoko 54. lurzatian matarrasa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Tellechea Echeverria anaiei eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileei jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

## **3.-ARANTZAKO EHIZA KOTOAREN BERRIZTAPENA.**

Arantzako Udalak 2012ko urtarrilaren 11n egindako bileran Batzorde Paritario Mistoaren Arantzako Udaleko ordezkariak izendatu ziren.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Batzorde Paritario Mistoaren bilera egitea ehiz kotoaren aferak aztertzeko.

## **4.-SAN FERMIN IKASTOLA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik San Fermin Ikastolak aurkeztutako idatzia, 2012ko urriaren 21ean izanen den Nafarroa Oinez antolatzeko diru laguntza eskaera eginez.

Kontuan izanik une honetan behar gehiago dutela bertze ikastolek.

Kontuan izanik 2012ko aurrekontuan ez dagoela horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) San Fermin Ikastolari diru laguntzarik ez ematea, aipatutako arrazoiengatik

## **5.-EUSKAL ARTZAIK AMERIKETAN: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Euskal Artzainak Ameriketean elkarreak aurkeztutako diru laguntza eskaera, herriko artzainen argazkiekin panela egiteko.

Kontuan izanik une honetan bertze beharrak ikusten direla.

Kontuan izanik 2012ko aurrekontuan ez dagoela horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Euskal Artzaiak Ameriketean elkarteari diru laguntzarik ez ematea, aipatutako arrazoiengatik.

## **6.-GAZTELU ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Gaztelu Elkarteak aurkeztutako diru laguntza eskaera, Nafarroa konkistatu zenetik 500 urte beteko direla eta horri buruz ikuskizun artistiko-musikala antolatzeko.

Kontuan izanik une honetan bertze beharrak ikusten direla.

Kontuan izanik 2012ko aurrekontuan ez dagoela horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Gaztelu Elkarteari diru laguntzarik ez ematea, aipatutako arrazoiengatik.



## **ARANTZAKO UDALA**

**www.arantza.eu**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@terra.es

### **7.-EZKONTZA ZIBILAK ETA HILDAKOEN ALDEKO AGURRAK EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA: HASIERAKO ONESPENA.**

Gai hau hurrengo plenorako uzten da prestatutako ordenantzaren edukia zinegotzi guztiei banatzeko eta aztertzeko.

### **8.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 3tik 9 arte).

### **9.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

-Koldobike Gorostiza andreak azaldu du Eskola Kontseiluan aztertutako gaiak. Bertze gaien artean, eskolan sumatzen den espazio falta da. Ttikia gelditzen ari da eta handitzeko aukerak aztertzea eskatzea erabaki zen. Aho batez, erabaki dute, udaleko arkitektoei eskola ikustera ekartzea aukerak aztertzeko.

**Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:**

### **10.-ALBERTO ETXEBESTE AIZPIOLEA JAUNARI JARRITAKO ZEHAZPEN ESPEDIENTEARI BURUZ.**

Ikusirik 2012ko urtarrilaren 13an hartutako akordioa eta espedientearekin aurre egiteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Udaleko abokatuei eskatzea Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunarekin harremanetan jartzeko, idatzi bat bidaliz gaiari irtenbide bat emateko: isuna jartzea eta obra baimenik egin gabeko lanak ordenazio kanpo uztea edota botaraztea eta isuna ttikiagoa jartzea.

### **11.-ADEMNA ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Ademna Elkartek aurkeztutako diru laguntza eskaera, esklerosi anizkoitza gaixotasuna duten bizilagunen bizi kalitatea hobetzeko asmoz.

Kontuan izanik 2012ko aurrekontuan ez dagoela horretarako partidarik.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ademna Elkarteari diru laguntzarik ez ematea, aipatutako arrazoiagatik.

### **12.-LODOSAKO IKASTOLA**

Ikusirik Lodosako ikastolaren egoera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Lodosako Ikastolari 500,00 euroko diru laguntza ematea.

2) Lodosako Ikastolari Udal honen atxikimendu osoa adieraztea.

3) Arantzako eskolari gaia lantzeko eskatzea laguntza emateko.

### **13.- 2011KO AZAROAREN 5 ETA 6KO UHOLDEENGATIK KALTETUTAKO HERRIEN DEKLARAZIOA.**

2011ko azaroaren 5 eta 6an Nafarroa, Gipuzkoa eta Iparraldean izan ziren euriteek ondorioztat kalte handiak utzi zituzten.

Eremu hauek jasan zituzten kalteen neurriak Espainia eta Frantziako Gobernuak estatu mailako laguntzak jaso ahal izateko hala eskatu zuten lurraldeak eremu katastrofiko bezala izendatzea ekarri zuen. Horrela gertatu da bai Gipuzkoa eta baita Iparraldean ere.

Nafarroako Foru Erkidegoan berriz kalteak batez ere ipar-mendebaldeko eremuetan eman dira eta momentuz Nafarroako Gobernuak ez du kaltetutako herriak lagundu edota etorkizun batean suerta daitezkeen kalteak aurreikusteko urratsik eman.

Edonola ere kaltetuak izan diren udalerrietan egoera larria da. Kezkagarria den egoera ekonomiko batean, eta zenbait kasutan bestelako finantziatorik lortzea eragozten duten zor handiarekin, ez ohiko fenomeno klimatologiko batek sortutako kalteei beren bitarteko mugatuekin erantzun beharrean aurkitzen gara.

Euriteen ondorengo astean zehar Nafarroako Gobernuko departamentu ezberdinekin eta sortutako kalteak aztertzeraz etorri ziren gobernuko teknikariekin hainbat kontaktu eta harreman izan genituen.

Harez geroztik ez dugu nafar administrazioaren berri gehiagorik izan, kaltetutako hainbat herrien eskariz eginiko bilerak alde batetara utzita. Bilera hauetan ez zaigu inongo aukera edota konponbiderik eman.

Hori dela eta kaltetutako udalerriek Nafarroako Gobernuari bidaltzen diogun txosten bateratua aztertu eta beharrezko inbertsioek kaltetutako udalerrietan duten eragina aintzat hartuz egoera honi aurre egiteko neurriak hartzeko eskatzen diogu.

Honez gain kalteak izan ez dituzten baina sortutako egoeraren gainean gure kezka partekatzen duten inguruko udalerrien babesa ere jaso dugu.

Honen aurrean, aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako Udalak kaltetutako udalerriari sustengua azaltzea.

#### **14.-ARGITERIA PUBLIKOA**

2012ko urtarrilaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 02528DGE/2011 EBAZPENA, abenduaren 15ekoa, Enpresaren eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, argiteria publikoan energia aurrezteko 2011-2012 kanpainako jarduketetarako diru-laguntzen deialdia onesten duena.

Diru-laguntza deialdi honen bidez, argiteria publikoko energia kontsumoa murriztu nahi da.

Kanpoko argiteria publikoaren energia auditoretzak egitea beharrezkoa denez.

Ikusirik Tecsiner eficiencia energética enpresak egindako aurrekontua Arantzako argiteria publikoaren auditoretza egiteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Kanpoko argiteria publikoaren energia auditoretza egiteko diru laguntza eskaera egitea.

#### **15.-SEKTORE PUBLIKOAREN ERREFORMARI BURUZKO MOZIOA.**

Duela egun batzuk espainiar gobernuaren arduradun zenbaiten ahotik sektore publikoan gauzatuko den politikaren ildo nagusiak entzun genituen.

Horrela, sektore publikoaren erreformara bideratutako neurri zenbaiten artean, zein baino zein murriztaileagoak, Berrezarpen Tasaren izoztea iragarri zen. Horrek, udalean jubilatuko den funtzionari ororen plazarik ez betetzea inposatu nahi du. Honi Enplegu Publikoaren Eskaintza izoztua dagoela gehitzen badiogu, ondorioak oso larriak izan daitezke.



**ARANTZAKO UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
📠 948 634 192  
[arrantza.udala@terra.es](mailto:arrantza.udala@terra.es)

Aurrezpen neurri bezala zabaldu denak, lehen golpean ikusi daitezkeenak baino eragin askoz eta garrantzitsuagoak izango ditu. Lehenik eta behin, epe erdira begira eta udal langileak jubilatzen doazen heinean, udalek eman beharreko zerbitzuak emateko adina langile ez dutela izango esan nahi du. Ondorioz, zerbitzuen kalitatearen merma okertze bat eratorriko da udaletara, baita gure honetara ere. Era berean, langile publikoen lan baldintzen okertzea suposatuko du.

Aurretik adierazitakoa bezalako neurrien bigarren ondorio nagusia, zerbitzu publikoak pribatizatu behar direla defendatzen dutenei atak irekitzea da. Hau da, zerbitzu publikoen liberalizazio osoa defendatzen dutenei mesede egitea. Honen guztiaren ondorio zuzena urte luzeen ondorioz guztiontzat ziren zerbitzuak dirua duten gutxi batzuk soilik izatea da. Ondorioz, eta azaldutakoaren bidetik, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Ondorengo mozioa onartzea:

-Udal honek, Espainiako Gobernuaren presidente den Mariano Rajoyk iragarritako neurriak errefusatzeko. Besteak beste, Enplegu Eskaintza Publikoaren suntsiketa eta funtzio publikoan berrezarpenaren debekuaz, udal honek eskaintzan dituen zerbitzuen kaltetzen duelako.

-Udal honek, geroz eta premiazkoa den Ongizarte Estatuaren defentsan kontsentsua mantentzea eskatzen du; udalek, herritarrengandik gertuneneko erakundeak izanik, eman behar dituzten zerbitzuen alde egiteko.

-Madrilek onartutako neurri hauen larritasunaren eta ondorioen aurrean, euskal gizarteari dei egitea, mobilizatu eta kalitatezko eta herritarrengandik gertuneko sistema publikoaren aldeko konpromisoa adierazi dezan.

## **16.- HERRIKO LURRAK ERABILTZEKO ESKAERA.**

Arantzako Udalak, 2011ko urriaren 7an egindako bileran erabaki zuen herriko lur batzuk erabiltzeko baldintzak zehaztea eta bandoa jartzea eskaerak aurkezteko.

Epean barne Juan Jose Madariaga Bergara jaunak bakarrik agertu du interesa, 5. poligonoko 976. lur zatia erabiltzeko hain zuzen ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Juan Jose Madariaga Bergara jaunak 5. poligonoko 976. lur zatia 5 urtez erabiltzeko baimena ematea onartutako baldintzak betetzeko pean.

Bertzerik gabe, gaueko 22:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaime Iturria Mitxelena jn..



